



TOLOSAKO
UDALA

2026ko TOLOSAKO UDALEKU IREKIEN PROGRAMAN IZENA EMATEKO OINARRIAK

1.- PARTE-HARTZEA

1.1.- 2026ko udaleku irekien egitarauan parte hartu ahalko dute 2012 eta 2020 bitartean (biak barne) jaiotako haurrek, Tolosan erroladatuta badaude.

Datu hori Udal Erroldan egiaztatuko da.

1.2.- Egitarauak ezaugarri hauek ditu:

Bi adin-tartetan banatuko dira udalekuak:

- a) 2016 eta 2020 artean jaiotakoentzat. (6-10 urteko adingabeak)
- b) 2012 eta 2015 artean jaiotakoentzat. (11-14 urteko adingabeak)

3 modalitate honela banatuak:

1. modalitatea: ekainak 29-uztailak 10.

2. modalitatea: uztailak 13-24.

3. modalitatea: ekainak 29-uztailak 24.

Ordutegia: 09:30etik 13:30era izango da denentzat, baina astearte eta ostegunetan, 11-14 urteko adingabeak 09:30etatik 16:30etara egongo dira.

Zaintza-zerbitzua denek erabili ahal izango dute:

- 6-10 urtekoek egunero, 08:30etik 09:30era, eta 13:30etik 14:30era.
- 11-14 urtekoek, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 08:30etatik 09:30etara eta 13:30etatik 14:30etara. Astearte eta ostegunetan, 08:30etatik

BASES PARA LA INSCRIPCIÓN EN EL PROGRAMA MUNICIPAL DE COLONIAS ABIERTAS DE TOLOSA de 2026

1.- PARTICIPACIÓN

1.1.- Podrán participar en el programa municipal de colonias abiertas de 2026 los/as niños/as nacidos/as entre 2012 y 2020 (ambos incluidos), empadronados/as en Tolosa.

Ese dato se comprobará en el Padrón Municipal.

1.2.- El programa tiene estas características:

Las colonias se dividirán en dos franjas de edad:

- a) Los/as nacidos/as entre 2016 y 2020. (Menores entre 6-10 años)
- b) Los/as nacidos/as entre 2012 y 2015. (Menores entre 11-14 años)

3 modalidades, distribuidos de esta forma:

1ª modalidad: 29 de junio-10 julio.

2ª modalidad: 13 julio-24 julio

3ª modalidad: 29 junio-24 julio

Horario: de 09:30 a 13:30 para todos/as, pero los martes y jueves, los menores de 11-14 años estarán de 09:30 a 16:30.

Se ofrecerá servicio de cuidado para todos/as los niños/as:

- Para los/las nacidos/as en 2016-2020 todos los días, de 08:30 a 09:30, y de 13:30 a 14:30.
- Para los/as nacidos/as en 2012-2015, los lunes, miércoles y viernes, de 08:30 a 09:30 y de 13:30 a 14:30. Los martes y jueves, se ofrecerá el servicio de ayuda, solamente, de



TOLOSAKO
UDALA

09:30etara bakarrik izango dute aukera zaintza-zerbitzurako, 16:30 arteko saioa izango dutelako.

08:30 a 09:30, ya que la jornada será hasta las 16:30.

Zaintza-zerbitzua behar izanez gero, izen-emate formularioan adierazi beharko da.

Se tendrá que señalar en el formulario de inscripción la necesidad de este servicio.

Plazak: Gehienez 150 plaza izango dira hamabostaldiko eta adin-tarte bakoitzeko. Plazen %5 hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzat gordeko da; guztira, 15 plaza. 15 plaza horiek honela banatuko dira: 6 eta 10 urte bitartekoen taldean 8 plaza, eta 11 eta 14 urte bitartekoen taldean 7 plaza. Bi taldeetako bat osatuko ez balitz eta bestean plazak baino eskaera gehiago egongo balira, plaza batzuk talde batetik bestera pasatu ahal izango dira, betiere plaza kopuru osoa hamabostetik gorakoa ez bada.

Plazas: Habrá un máximo de 150 plazas por quincena y tramo de edad. Se reservará un 5 % de las plazas para niños con necesidades especiales, lo que supone un total de 15 plazas. Estas 15 plazas se distribuirán de la siguiente manera: 8 plazas en el grupo de 6 a 10 años y 7 plazas en el grupo de 11 a 14 años. Si uno de los dos grupos no se formara y en el otro hubiera más solicitudes que plazas, se podrán trasladar plazas de un grupo a otro, siempre que el número total no supere las quince.

Behar bereziak dituzten haurrentzat eskainitako 15 plazak beteko ez balira, plaza horiek behar bereziak ez dituzten haurrentzat eskaini ahal izango dira gehieneko plaza kopurua errespetatuz.

En el caso de que no se cubrieran las 15 plazas ofertadas para niños con necesidades especiales, éstas se podrán ofertar para niños sin necesidades especiales respetando el número máximo de plazas.

Edozein udaleku-talde martxan jartzeko, ezinbestekoa izango da gutxienez 10 pertsonak izena ematea talde horretan.

Será condición indispensable para activar cualquiera de los grupos que haya al menos 10 personas inscritas en el grupo en cuestión.

1.3.- Plaza-kopurua baino izen-emate gehiago badaude, zozketa bidez erabakiko da onartuen eta baztertuen zerrenda. Behin epe barruan aurkeztu direnen datuak egiaztatu ondoren, onartuak izan direnen artean egingo da zozketa. Lehentasuna izango dute udalekuetako 3. aukeran izena eman dutenek.

1.3.- Si hubiera más inscripciones que el número de plazas, la lista definitiva de las personas admitidas y excluidas se decidirá por sorteo. El sorteo se realizará entre las personas que hayan presentado la inscripción en plazo, y, una vez verificados los datos, hayan sido admitidas. Tendrán prioridad las personas que se inscriban en el tercer turno.

2.- AURRETIKO IZEN-EMATEAK

2.- PREINSCRIPCIONES

2.1.-2026eko udaleku irekien udal-egitarauan parte hartzeko, **aurretiko izen-ematea martxoaren 16tik 29ra, eguerdiko 12:00ak bitartean** (biak barne) egin behar dute interesdunek.

2.1.-Para participar en el programa municipal de colonias abiertas de 2026, las **preinscripciones** deben realizarse entre el **16 y el 29 de marzo, hasta las 12:00 del mediodía** (ambos inclusive).



TOLOSAKO
UDALA

Aurretiko izen-ematea bide hauetako bat erabiliz egingo da:

- Tolosako Udalaren webgunean: www.tolosa.eus/
- Tolosako kultur etxean. Ordutegia: 10:00-13:00 eta 17:00-19:00.

2.2.- Aurretiko izen-ematea egiteko, udalekuan parte hartu nahi duten haurren datuak eman beharko dira: izen-abizenak, jaiotze-data, helbide osoa, ordezkariaren telefono mugikorreko zenbakia eta helbide elektronikoa, aukeratutako txanda/txandak, eta hezkuntza-behar berezirik edo desgaitasunik ba ote duen.

Eskainitako plaza guztien % 5 gordeko dira gutxienez % 33ko desgaitasuna eta/edo ofizialki aitortutako mendetasun-maila duten adingabeentzat, betiere, ez badute zerbitzuaren funtzionamenduan edo bertako bizikidetzan normalean eragin larria izan dezaketen portaera-nahasmendurik edo portaerarik, edo beren, beste erabiltzaileen edo profesionalen segurtasunerako arriskutsua izan daitekeenik. Adingabe horiek EAEko hezkuntza sisteman matrikulatuta egon beharko dute, eta udalekuetako ekintzen erritmoa jarraitzeko gai izan behar dute.

Oso garrantzitsua da eskuko telefono-zenbaki eta posta elektronikoa bat ematea; izan ere, horiek erabiliko dira komunikazio guztiak egiteko. Eman ezean, interesdunak erne ibili beharko du programaren inguruan komunikatzen den guztiaren berri izateko (epeak, komunikazioak...), Tolosako Udalaren web-orriaren bidez (www.tolosa.eus/).

2.3.- Zozketarako egiten den aurretiko izen-ematearen fitxa bakoitza korrelazio zenbakituko da aurkezterakoan. Izen-emate bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, eta hori erabiliko da zozketarako. Eskatzaile

La preinscripción se hará a través de alguno de estos medios:

- En la página web de Ayuntamiento: www.tolosa.eus/
- Casa de cultura de Tolosa. Horario: 10:00-13:00 y de 17:00-19:00

2.2.- Para realizar la preinscripción, se deberán facilitar los datos de los/as niños/as que deseen participar en las colonias: nombre y apellidos, fecha de nacimiento, dirección completa, número de teléfono móvil y correo electrónico de la persona representante, turno/turnos a los que desea asistir, y si tiene necesidades educativas especiales o alguna discapacidad.

Se reservará el 5 % del total de plazas ofertadas a menores con una discapacidad igual o superior al 33 % y/o con un grado de dependencia reconocido oficialmente, siempre que no presenten trastornos de conducta ni comportamientos que puedan afectar gravemente al funcionamiento del servicio, a la convivencia normal en el mismo o que supongan un riesgo para su propia seguridad, para otras personas usuarias o para el personal profesional. Estos/as menores deberán estar matriculados/as en el sistema educativo de la CAPV, y deberán de estar capacitados para seguir el ritmo de actividades de las colonias.

Es muy importante facilitar un correo electrónico y un número de teléfono móvil, ya que es el medio que se utilizará para todas las comunicaciones. En caso de no facilitarlos, el interesado/a tendrá que estar atento/a los plazos y a las comunicaciones sobre cualquier cuestión referida a la actividad mediante la web del Ayuntamiento de Tolosa (www.tolosa.eus/).

2.3.- Cada ficha de preinscripción para el sorteo será numerada correlativamente al presentarse. A cada inscripción se le adjudicará un número, que será el que se utilice a la hora del sorteo. Si cada participante



TOLOSAKO
UDALA

berak izen emate bat baino gehiago aurkeztu ezkerro, bakarra hartuko da kontutan.

2.4.- Aurretiko izen-ematea egiteak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla.

3.- ZOZKETA

3.1.-ZOZKETA martxoaren 30 edo 31ean egitea aurreikusten da, zehaztuko diren tokian eta orduan.

Emaitzak jendaurrean jarriko dira erakusgai Udalaren webgunean (www.tolosa.eus) **zozketaren hurrengo egunean**. Gainera, zerrendak kultur etxean kontsultatu ahal izango dira 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Horrez gain, emaitzak jasoko dira mezu elektronikoz eta SMS bidez ere.

Hala ere, inguruabarrek hala gomendatuko balute, zozketa egingo den egunak aldatu ahal izango dira.

3.2.- Honela egingo da ZOZKETA:

a.- Hiru modalitate daude, eta aukera bakoitzerako 300 plaza daude gehienez. Plaza horietatik %5 gordeko dira gutxienez %33ko desgaitasuna eta/edo ofizialki aitortutako mendetasun-gradua duten adingabeentzat. Guztira: 15 plaza.

15 plaza horien zozketa honela egingo da:

8 plaza, 6 eta 10 urte bitartekoen taldeari egokituko zaizkio, eta **7 plaza** 11 eta 14 urte bitartekoen taldeari. Bi adin-tarteetako baten plazak eskaera nahikorik jaso ezean betetzen ez badira, eta besteko adin-tartean eskaera kopuruak plazen kopurua gainditzen badu, adin-tarteen artean plaza-kopuruak egin ahal izango da, betiere gordetako 15 plaza guztien kopurua errespetatuz.

presenta más de una inscripción se tendrá en cuenta solamente una.

2.4.- La realización de la preinscripción supone la aceptación íntegra de estas bases.

3.- SORTEO

3.1.-El SORTEO se realizará, con carácter orientativo, los días 30 ó 31 de marzo, en el lugar y a la hora que se determinen.

Los resultados se expondrán al público en la página web del Ayuntamiento (www.tolosa.eus) el **día siguiente al sorteo**. Las listas, además, se podrán consultar en la casa de cultura de 10:00 a 13:00 y de 17.00 a 20:00.

Además, se recibirán los resultados del sorteo por correo electrónico y SMS.

No obstante, si las circunstancias así lo aconsejaren, podrán modificarse los días en los que se realizará el sorteo.

3.2.- El procedimiento del SORTEO será el siguiente:

a.- Hay tres modalidades y en cada una de ellas se ofertarán un máximo de 300 plazas. El 5 % de estas plazas se reservará a menores con discapacidad de al menos un 33 % y/o grado de dependencia reconocido oficialmente. Total: 15 plazas.

El sorteo de esas 15 plazas se realizará de la siguiente manera:

8 plazas estarán destinadas al grupo de edad de 6 a 10 años y **7 plazas** al grupo de 11 a 14 años. En el supuesto de que en alguno de los dos tramos de edad no se recibieran solicitudes suficientes para cubrir las plazas reservadas y, por el contrario, en el otro tramo existiera un número de solicitudes superior al de plazas disponibles, se podrá proceder a la compensación entre ambos grupos de edad, respetando en todo caso el número total de 15 plazas reservadas.

b.- Bigarren zozketa egingo da gainerako plazetarako, **lehentasuna emanaz hirugarren modalitatean izena eman dutenei.**

Zozketa programa informatiko baten bidez egingo da. Adin-tarte bakoitzeko 15 talde osatuko dira, eta talde bakoitza 10 haurrez osatuta egongo da. Adin-tarte bakoitzeko 15 zenbaki hautatuko dira, eta hautatutako zenbaki bakoitzaren ondoren hurrengo bederatziak osatuko dute taldea. Plazen banaketa egokituko da hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzat gordetako plazen kopuruaren arabera.

Plazak betetzen badira, eta matrikulazio-garaian bajak izango balira, hurrenkeran itxaron-zerrendan daudenak sartuko lirateke.

4.-BEHIN BETIKO IZEN-EMATEAK EGITEKO MODUA, LEKUA ETA EPEA.

4.1.- Zozketa egin eta emaitzak jendaurrean erakusgai jarri ondoren, Tolosako Udalak mezu elektronikoa bat eta SMS bat bidaliko die plaza duten onuradunei, behin betiko izen-ematea egin dezaten.

Behin betiko izen-ematea Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango da (<https://udala.tolosa.eus/es>), tramiteen ataritik dagokion izapidera sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez dezakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorrita (UDATE, Plaza Zaharra 6B), ordutegi honetan:

Astelehenetik asteazkenara: 07:15 - 14:15

Osteguna: 07:15 - 19:00

b.- Se hará un segundo sorteo para el resto de las plazas **dando prioridad a los y las inscritos en la tercera modalidad.**

El sorteo se realizará mediante un programa informático. Para cada franja de edad se conformarán 15 grupos de 10 niños y niñas cada uno. Se seleccionarán 15 números por tramo de edad, y a partir de cada número elegido se integrará el grupo con los nueve siguientes. La distribución de plazas se ajustará en función del número de plazas destinadas a menores con necesidades educativas especiales.

En el caso de que se completen las plazas y en el momento de la matriculación haya bajas, se incluirán en orden a las personas que estén en lista de espera.

4.- FORMA, LUGAR Y PLAZO DE INSCRIPCIÓN DEFINITIVA.

4.1.- Una vez efectuado el sorteo y expuestos los resultados al público, el Ayuntamiento de Tolosa enviará un correo electrónico y un SMS a las personas beneficiarias con plaza, para que procedan a la inscripción definitiva.

La inscripción definitiva se podrá presentar a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Tolosa (<https://udala.tolosa.eus/es>) accediendo al trámite correspondiente desde el portal de trámites. En caso contrario, podrá presentarse de forma presencial en la oficina de atención a la ciudadanía (UDATE, Plaza Zaharra 6B), en el siguiente horario:

De lunes a miércoles: 7:15-14:15

Jueves: 07:15-19:00

Ostirala: 08:15 - 14:15

Viernes: 08:15-14:15

Izen-emate horiek egiteko epea **apirilaren 13tik 24ra** izatea aurreikusten da

Behin betiko izen-ematea egin ahalko da plaza bat lortu duenaren ama, aita, tutore edo ordezkari baimendu gisa agertzen denaren ziurtagiri elektroniko bidez, edo aurrez aurre.

Behin betiko izen-ematea aipatutako epean egiten ez bada, ulertuko da plazari uko egiten zaiola. Kasu horretan, oinarri hauetako 10. atalean azaldutakoaren arabera jokatu da.

Onartutako eta kanpo utzitako pertsonen zerrenda behin betiko **maiatzaren 7an** argitaratzea aurreikusten da. Hala ere, inolako arrazoirengatik data horretan informazioa argitaratzea ezinezkoa izanez gero, izena emateko epea itxi eta hurrengo egunean hasita, gehienez 15 eguneko epea ezartzen da zerrenda horiek argitaratzeko.

Era berean, interesdunei posta elektroniko eta SMS bidez jakinaraziko zaie.

El plazo previsto para realizar estas inscripciones es del **13 al 24 de abril**.

La inscripción definitiva podrá realizarse utilizando un certificado electrónico de la persona que figure como madre, padre, tutor o representante autorizado de la persona que haya obtenido una plaza, o de manera presencial.

Si la inscripción definitiva no se realiza en el citado plazo, se entenderá que renuncia a la plaza. En ese caso, se procederá a lo establecido en el apartado 10 de estas bases.

El listado definitivo de personas admitidas y excluidas está previsto para su publicación **el 7 de mayo**. No obstante, en caso de que por cualquier circunstancia no fuera posible publicar la información en esa fecha, se establece un plazo máximo de 15 días naturales, contados a partir del día siguiente al cierre del plazo de inscripción, para la publicación de dichos listados.

Así mismo, se les notificara a los interesados por correo electrónico y sms.

5.- ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1) Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, dagokion izapidetan sartuta eskura daiteke, [hemen](#). Eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

5.-DOCUMENTACIÓN QUE DEBE ACOMPAÑAR A LA SOLICITUD

- 1) Instancia normalizada facilitada por el Ayuntamiento. Se accede a la sede electrónica del Ayuntamiento, desde donde se puede obtener accediendo al trámite correspondiente, [aquí](#). Deberá estar firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la persona solicitante.



TOLOSAKO
UDALA

Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

En el impreso de solicitud se indicará:

a) Erantzukizunpeko adierazpena: adin txikikoaren legeko tutorea dela, eta haren izenean jarduteko legeko gaitasuna eta aginpidea duela.

a) Declaración responsable de ser tutor/a legal del/de la menor y de tener capacidad y autoridad legal para actuar en su nombre.

b) Erantzukizunpeko adierazpena: adin txikikoaren tutoretza aldatzen bada, dagokion erakundeari berehala jakinarazteko konpromisoa hartzen duela.

b) Declaración responsable de quien se comprometa a comunicar de forma inmediata la modificación de la tutela del/de la menor a la entidad correspondiente.

c) Erantzukizunpeko adierazpena: adin txikikoaren datu pertsonalen konfidentzialtasuna babesteko betebeharraren eta datuak babesteko araudi aplikagarriaren arabera jarduteko betebeharraren berri jaso duela.

c) Declaración responsable de haber sido informado/a de la obligación de proteger la confidencialidad de los datos de carácter personal del/de la menor y de actuar conforme a la normativa aplicable en materia de protección de datos.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, beharrezkoa bada, adingabearen legeko tutorea dela egiaztatzen duen legeko dokumentazioa aurkezten duenarena.

d) Declaración responsable, en su caso, de quien presente la documentación legal que acredite su condición de tutor/a legal de la persona menor de edad.

e) Erantzukizunpeko adierazpena: agiri, egiaztagiri eta datu guztiak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

e) Declaración responsable relativa a la veracidad, exactitud, integridad y actualización de todos los documentos, certificados y datos.

2) Legezko tutorea dela egiaztatzen duen dokumentua.

2) Documentación que acredite la tutoría legal del menor.

3) Prezioen murrizketa guraso bakarreko familia izateagatik edo egoera ekonomiko zaurgarriagatik eskatuko bada, eskaera-orrian bete beharko da.

3) Si la reducción de precios se va a solicitar por la condición de familia monoparental o situación económica de vulnerabilidad, se deberá cumplimentar en la hoja de solicitud.

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

En caso de oposición a la consulta de documentos:

a) Errolda-agiria

a) Certificado de empadronamiento

b) Kontu korrontearen titulartasunaren egiaztagiria.

b) Certificado de titularidad de la cuenta corriente.

c) Desgaitasun-agiria.

c) Certificado de discapacidad.

d) Familia ugariaren tituluaren ziurtagiria.

d) Certificado del título de familia numerosa.

e) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) buruzko ziurtagiria.

e) Certificación de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI).



TOLOSAKO
UDALA

6.- DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez.

NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Pertsona eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.

Illo horretan, izapide honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Eusko Jaurlaritzari kontsulta, kontu korrontearen titularitasunari buruz.
- EAEko Udalei kontsulta, gaur egungo banakako erroldari buruz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari kontsulta, desgaitasun datuei buruz.
- Eusko Jaurlaritzari kontsulta, familia ugariaren tituluari buruz.
- Lanbideri kontsulta, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) buruz.

6.- DOCUMENTACIÓN INTERACTIVA Y VERIFICABLE

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, reconoce en su artículo 28 el derecho de la ciudadanía a no presentar los documentos que obren en poder del Ayuntamiento de Tolosa.

Asimismo, se reconoce a los/as ciudadanos/as el derecho a no presentar documentos elaborados por cualquier Administración. El Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o acceder a estos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE.

NISAE es una plataforma utilizada por todas las administraciones y entidades del sector público vasco, nodo autonómico para compartir datos electrónicos entre las distintas administraciones.

Las personas solicitantes podrán manifestar expresamente su disconformidad con la verificación de los documentos, en cuyo caso deberán aportarlos.

En este sentido, para este trámite se verificarán los siguientes requisitos a través de las plataformas corporativas de intermediación o acceso público NISAE:

- Consulta al Gobierno Vasco sobre la titularidad de la cuenta corriente.
- Consulta a los Ayuntamientos de la CAPV sobre el actual censo individual.
- Consulta a la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre datos de discapacidad.
- Consulta al Gobierno Vasco sobre el título de familia numerosa.
- Consulta a Lanbide sobre la Renta de Garantía de Ingresos (RGI).



TOLOSAKO
UDALA

Salbuesenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona eskatzaileari aurkez ditzala.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri gutia.

7. KOBRANTZA

a) Izena ematea behin betiko eginda, prezio publikoa ordainketa bakarrean egin beharko da, ekainaren 15etik 30era bitarte. Salbuesenez, ordainketa bertan behera uzteko eskaera egin ahal izango da honako kasu hauetan:

- Gaixotasuna, mediku-agiriarekin egiaztatuta, koloniatan parte hartzea ezinezkoa den kasuan.
- Egoera salbuespenak, behar bezala justifikatuta.

Kasu hauetan, parte-hartzaileak ordainketa bertan behera uzteko edo kuota itzultzeko eskaera egin beharko du koloniak hasi baino lehen (ekainaren 28a). Kasu guztietan, prezio publikoko %20 gordeko da. Prezio publikoen kudeaketa Tolosako Udaleko Prezio Publikoen Ordenantzetan arautzen da.

b) Salbuesenez, epeak igarota egindako baja-eskaerak kontuan hartu ahal izango dira, parte-hartzaileak kolonietako egun bakar batean ere parte hartu ez duela egiaztatuta.

c) Ordainketa guztiak, ahal den heinean, helbideratu egin beharko dira, eta banku-ordainketa bidez egingo dira; hala ere, ordainketak eskudirutan ere egin ahal izango dira udalekuak hasi aurretik. Horretarako, Tolosako Udaleko zerga-bilketa Unitatera jo beharko da, eta bertan dagokion ordain-agiria eskatu ahal izango da, diru-sarrera

Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera acceder a los documentos a que se refieren los apartados anteriores, podrá requerir de nuevo a la persona solicitante para que los aporte.

En su defecto, el órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

7. COBRO DE LA CUOTA

a) Una vez realizada la inscripción definitiva, se deberá efectuar el pago del precio público en una sola cuota, entre el 15 y el 30 de junio. Excepcionalmente, se podrá solicitar la cancelación del pago en los siguientes casos:

- Enfermedad, debidamente acreditada mediante justificante médico, que impida la participación en las colonias.
- Situaciones excepcionales debidamente justificadas.

En estos casos, la persona participante deberá solicitar la cancelación del pago o la devolución de la cuota antes del inicio de las colonias (28 de junio). En todo caso, se retendrá el 20 % del precio público. La gestión de los precios públicos se regula en las Ordenanzas de Precios Públicos del Ayuntamiento de Tolosa.

b) Excepcionalmente, se podrán tener en cuenta solicitudes de baja fuera de plazo siempre que se acredite que la persona participante no ha asistido a ningún día de las colonias.

c) Todos los pagos se realizarán preferentemente mediante domiciliación bancaria; no obstante, también podrán efectuarse en efectivo antes del inicio de las colonias. Para ello, será necesario acudir a la Unidad de Recaudación del Ayuntamiento de Tolosa, donde se podrá solicitar el recibo correspondiente y efectuar el ingreso en la



TOLOSAKO
UDALA

banketxean egin ahal izateko.

entidad bancaria indicada.

d) Ordainketaren betebeharra duen pertsonaren erruz ez diren arrazoiengatik, zerbitzua ez ematen bada edo ez garatzen bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

d) Si, por causas no imputables a la persona obligada al pago, el servicio no se presta o no se desarrolla, se procederá a la devolución del importe correspondiente.

8. PREZIO PUBLIKOAK

8. PRECIOS PÚBLICOS

EPEA	PREZIOA	DURACIÓN	PRECIO
Ekainak 29- uztailak 10	46,20 €	29 de junio- 10 de julio	46,20 €
Uztailak 13-uztailak 24	46,20 €	13 de julio-24 de julio	46,20 €
Ekainak 29-uztailak 24	87,30 €	29 de junio-24 de julio	87,30 €

9. PREZIO-MURRIZKETAK

9. REDUCCIÓN DE PRECIOS

Prezio publikoen murrizketa izapidetzea eta aitortzea Tolosako Udalaren Prezio Publikoak Arautzen dituen Ordenantzaren bidez arautuko da.

La tramitación y reconocimiento de la reducción de los precios públicos se regulará por la Ordenanza Reguladora de los Precios Públicos del Ayuntamiento de Tolosa.

(Ikus 1 eranskina)

(Ver anexo 1)

10. ERRESERBA-ZERRENDA ETA KUDEAKETA

10. LISTADO Y GESTIÓN DE LAS RESERVAS

10.1. Zozketan egokitutakoari jarraituz, erreserba-zerrenda bat egingo da, aurretiko izen-emateetan adierazitako lehentasunen arabera.

10.1. Se elaborará una lista de reservas resultante del sorteo atendiendo a las preferencias indicadas en las preinscripciones.

10.2. Behin betiko izen-ematea amaitzen denean toki librerik badago, plaza horiek banaka kudeatuko dira itxaron zerrendaren hurrenkeraren arabera.

10.2. Si al finalizar la inscripción definitiva hubiera plazas libres, se seguirá el siguiente procedimiento para la notificación y adjudicación a las personas en reserva:

a.-Kudeatzeko gehieneko epea astebetekoa izango da behin-betiko zerrenda argitaratzen den unetik hasita.

a.- El plazo máximo de gestión será de una semana a partir del momento en que se publique la lista definitiva.

b.- Kultura, Festak eta Gazteria Sailetik harremanetan jarriko dira telefonoz

b.- Desde el Area de Cultura, Fiestas y Juventud se pondrán en contacto



TOLOSAKO
UDALA

erreserben titularrekin, betiere zozketako ordena errespetatuz. Tokia interesatzen zaion ala ez baieztatzeko epea 24 ordukoa izango da deia egiten denetik zenbatuta. Epe horretan erantzun ezean, eskaera bertan behera geratuko da.

c.- Harremanetan jartzeko, gehienez hiru (3) telefono dei egingo dira, eta ordu desberdinetan deituko da, lehen aipatutako ordutegiaren barruan (09:00etatik 19:00ak arte).

telefónicamente con los titulares de las reservas, respetando en todo caso el orden del sorteo. El plazo para confirmar el interés de la plaza será de 24 horas a partir del contacto. Transcurrido dicho plazo sin contestación, la solicitud se entenderá desestimada.

c.- El número máximo de intentos para contactar telefónicamente será de tres (3), a realizar a distintas horas dentro del horario establecido (09:00 a 19:00 horas).

11. INFORMAZIOA EMATEA

Ekainaren 1etik 15era bitartean bilera informatiboak egingo dira udalekuetan aukeratuak izan diren haurren familiekin.

11. INFORMACIÓN DE LAS COLONIAS

Del 1 al 15 de junio se realizarán reuniones informativas con las familias de los/as participantes en las colonias.

12.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEAK

12.1.- Izaera pertsonaleko datuak jasotzen dira udal-eskumenen jardunean, eta egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste Herri Administrazioei kontsultatuz legezko betebeharrean dagokion prozedura egoki kudeatzeko. Datu horiek Tolosako Udalaren Informazio Sisteman sartuko dira eta soilik datuen babesaren alorreko legedian aurreikusitako kasuetan utzi ahal izango zaizkie hirugarrenei.

12.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

12.1.- Los datos de carácter personal se recogerán en ejercicio de competencias municipales, y se podrán verificar o completar mediante consulta a otras Administraciones Públicas por obligación legal para la correcta gestión del correspondiente procedimiento. Dichos datos serán incluidos en el Sistema de Información del Ayuntamiento de Tolosa y podrán ser cedidos a terceros únicamente en los supuestos previstos en la legislación en materia de protección de datos personales.

12.2.- Datuei lotutako sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak interesdunek gauzatu ditzakete UDATEn (Herriarren Arreta Zerbitzua) edo Tolosako Udalaren egoitza elektronikoa bidez. Orobat, erreklamazio bat aurkeztu dezakete Tolosako Udalaren Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (www.avpd.euskadi.eus).

12.2.- Las personas interesadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición a través de UDATE (servicio de atención a la ciudadanía) o mediante la sede electrónica del ayuntamiento. También podrán presentar una reclamación ante el delegado o delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Tolosa o ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (www.avpd.euskadi.eus).



TOLOSAKO
UDALA

13.- ARAU OROKORRAK

13.1.- Udaleku irekien udal-programa aisialdiko proposamen hezitzailea da, eta helburu nagusia du udako oporraldiaz modu aktiboan gozatzea.

13.2.- Udalekuak euskarazkoak dira. Hortaz, sustatuko da haurrek beren egunerokoan euskaraz aritzea gainerako haurrekin eta begiraleekin.

13.3.- Gurasoek edo tutoreek nahitaez adierazi behar dute inskripzio-orrian dagokion laukitxoak markatuz ea adingabeak tratamendu medikoren bat edo bestelako jarraibideren bat betetzen duen, udalekuetan izan dezakeen garapen arruntari eragin diezaiokeena. Hala izango balitz, haurren behar espezifikoak Tolosako Udaleko Gazteria Saileko teknikariari jakinarazi beharko zaizkio zuzenean, gazteria@tolosa.eus helbide elektronikoaren bidez.

13.4.- Udalekuak elkarbizitzarako eta balioak ikasteko lekuak dira; horregatik, elkarbizitzako eta lankidetzako arauak dituzte. Parte-hartzaileen batek behin eta berriz horiek hautsiko balitu, kanporatu egin ahalko da. Etxeratzea aiten, amen edo tutoreen kargu izango litzateke. Horrelakoetan, Udalak eskubidea du udalekuetako beste edizioetan parte hartzen ez uzteko.

13.5.- Ezingo da eraman gailu elektronikorik udalekuetara: joko elektronikoak, kontsolak, MP3, MP4, IPOD, telefono mugikorrak, smartwatch-ak edo antzekoak. Gurasoek edo tutoreek erabakitzen badute beren seme-alabek horrelako gailuak eramatea, gailu horiek begiraleen esku geratuko dira.

13.- NORMAS GENERALES

13.1.- El programa municipal de colonias abiertas es una propuesta de ocio educativo, cuyo principal objetivo es disfrutar el periodo vacacional de verano de forma activa.

13.2.- Las colonias son en euskera. Así pues, se fomentará que los/las niños/as se desenvuelvan en el día a día en euskera, con sus compañeros/as y monitores/as.

13.3.- Es deber inexcusable de los padres, madres o tutores indicar en la hoja de inscripción marcando la casilla correspondiente si el menor sigue algún tratamiento médico o alguna pauta de otra índole que pueda afectar a su desarrollo normal durante la colonia. Si así fuera, las necesidades específicas del niño deberán ser comunicadas directamente al personal técnico del departamento de Juventud del Ayuntamiento de Tolosa, a través del correo electrónico gazteria@tolosa.eus.

13.4.- Las colonias son espacios de convivencia y aprendizaje de valores, y están sujetas a normas de convivencia y colaboración. Si algún/alguna participante las incumpliera reiteradamente, podría ser expulsado/a. El traslado correría a cargo de los padres, madres o tutores. En estos casos el Ayuntamiento se reserva el derecho de no permitir su participación en futuras ediciones de colonias.

13.5.- No se permitirán objetos o equipos electrónicos: juegos electrónicos, consolas, MP3, MP4, IPOD, teléfonos móviles, smartwach etc. Si padres, madres o tutores, optan por que los/as niños y niñas lleven algún aparato de estas características, estos quedarán en custodia del equipo de monitores/as.



TOLOSAKO
UDALA

13.6.- Garrantzi berezia duten kasuetarako, harremanetarako telefono bat egongo da, eta gurasoek edo legezko tutoreek bertara deitu ahal izango dute.

13.6.- Existirá para casos de especial importancia un teléfono de contacto al que los padres y madres o tutores legales podrán llamar.

14.- KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA ZERBITZUAREN AHALMENA

Kultura, Festak eta Gazteria Zerbitzuak eskumena du oinarriotan aurreikusi gabeko guztietan sor daitezkeen zalantzetan eta kasu berezietan erabaki eta programaren funtzionamendua behar bezala eramateko beharrezko akordioak hartzeko.

14.- FACULTAD DEL SERVICIO CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD

El Servicio de Cultura, Fiestas y Juventud está facultado para resolver los casos de duda y casos especiales que puedan presentarse en todo lo no previsto en las presentes bases, así como para adoptar las decisiones necesarias en todo lo referente al buen funcionamiento del programa.

1. ERANSKINA / ANEXO 1

UDALEKUEN PREZIO MURRIZKETAK / PRECIOS REDUCIDOS DE LAS COLONIAS

Familia ugariak Familias numerosas	Familia guraso bakarrak Familias monoparentales	Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun badira. Los beneficiarios de las prestaciones económicas de los Servicios Sociales y del Sistema Vasco
% 50	% 50	% 80

	URTEKO DIRU-SARRERAK INGRESOS ANUALES			
Bizikidetza unitateko kide kopurua Número de miembros de la unidad convivencial	0-15.876 €	15.877-19.501 €	19.502-21.723 €	21.724-24.320 €
1 edo 2	80%	60%	50%	0%
3	90%	70%	60%	25%
4 edo gehiago	95%	90%	90%	60%